



Hezkuntza AIARALDEAN

HAURTZAINDEGIAK

GUSTU GUZTIETARAKO ASKOTARIKO AUKERAK



Gehigarri berezia

erreportajea

Nolakoa izango da haurren “normaltasun berria”?

HILABETE BAT BAINO GEHIAGO EMAN DUTE HAURREK ERABATEKO KONFINAMENDUAN. EGOERA JADA BIDERATU DEN ARREN, ORAINDIK PAUSO ASKO EMAN BEHAR DIRA EGOERA GUZTIZ BIDERATZEKO, ETA IKUSTEKE DAGO NOLAKOA IZANGO DEN HAURREN “NORMALTASUN BERRIA”.



Eskualdeko bizilagun askok egin dute bat konfinamenduan haurrei kalera irteteko aukera ematearen aldeko aldarriarekin. Goiko irudietan, Urduñako balkoi batzuetan jarritako kartelak. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Hilabete baino gehiago igaro da haurrak kalera irteten hasi ahal izan zirenetik. Ordurako beste horrenbeste denbora zera-maten erabateko konfinamenduan, ezin baitziren erosketak egitera laguntzeko ere atera. Gauzak hala, hezkuntza eragile eta guraso elkarte ugari batu ziren haurrei kalera irteten uzteko aldarrikatzeko, eta presioak eragina izan zuen azkenean.

Hala ere, egoera ez da guztiz bideratu. Parke eta bestelako azpiegiturek itxita jarraitzen dute, eta kolokan daude datozen hila-beteetarako aurreikusiak zeuden udaleku eta ludotekak. Haurrak ere “normaltasun berrira” ohitu beharko dira, eta bidea ez dirudi samurra izango denik.

Haur Hezkuntzako zentroetan ugariak dira zalantzak. “Adminis-

Haur Hezkuntzako zentroek oraindik ez dakite zein egoerarekin topatuko diren datorren ikasturtean

traziotik ez dute ezer argitu. Orain arte erabili duten irizpidea izan da ikastetxeen autonomia sustatzea, baina ardura beste bati pasatzea da hori”, azaldu du Goretzi Escalzak. Bere hitzetan, “unean uneko egoerei” erantzuten ari dira eskoletan, eta egoera “oso berde” dago oraindik.

Eskola telematikokoak

Alarma egoerak iraun bitartean telematikoki eman dituzte klaseak. Baina sistema horrek arazoak sortzen baditu DBH eta Batxilergoko ikasleen artean, zer esanik ez 0-5 urte bitarteko haurren kasuan. “Umeek oraindik ez dute telematikoki aritzeko gaitasunik, helduen laguntza behar izaten dute. Horrek esan nahi du gurasoak irakasle edo, behintzat, bide-lagun bihurtu behar izan direla”, azaldu du Escalzak, “oso eskola zaharreko metodologia da”.

Irakasle audioarrak ez du dato-

Koronabirusak sortutako hainbat egoerek bestelako hezkuntza eredu batzuk planteatzeko balio dezakete. Naturarekiko harremana estutzeko, adibidez

ren ikasturtea oso argi irudikatzen. “Imajinatzen dugu maskarekin itzuli beharko dugula klasera, distantziak mantendu... eta hori Haur Hezkuntza ezinezkoa da. Frantziako ikastetxe batzuetan eginiko argazkiak ikusi ditugu eta beldurgarriak dira”. Familia batzuek oraindik beldurra dutela gaineratu du Escalzak, “ez dakite datorren ikasturtean seme-alabak eskolara eramango dituzten edo ez. Arriskuarekin bizitzen ikasi beharko dugu. Badirudi gaixotasun hau geratzeko etorri dela. Berarekin bizitzen ikasi beharko dugu, eta apurka pausoak eman”.

Gauzak hala, “egokitzen luze eta pertsonalizatua” egin beharko dutelakoan dago Escalza. “Aztertu beharko da zeintzuk diren umeen behar afektiboak. Laguntza eman beharko zaie, bizi izan dutena ulertu beharko dute, kontzientzia hartu. Hitzak jarri behar-

erreportajea

ko dizkiete konfinamenduan izan dituzten emozioei”.

Era berean, “lagunak berreskuratzen” lagundu beharko dietela uste du irakasleak. “Ume txikiek ez dute harremanekiko guk dugun pertzepzio bera. Irakatsi beharko diegu lagunek hor egoten jarraitzen dutela, ez direla desagertu. Eskola oso sozializazio esparru garrantzitsua da eurentzat”.

Eredu berriak

Hala ere, Escalzak badu baikortasun puntu bat egoera honekiko. Bere ustez, ezegonkortasun

guztia haur hezkuntza eredua birplanteatzeko baliatu ahalko litzateke. “Aukera oso ona da horretarako”, ziurtatu du, baina gaineratu du horrek “ahalegin handia” suposatzen duela. “Ez dakit jende guztia prest dagoen beste eskola mota baten alde lan egiteko”.

Natura jarri du horren adibide. “Honakoa aukera ona izan daiteke umeei ikasgelatik sarriago atera eta naturarekin harremana estutzeko, aire zabalean askoz zailagoa baita koronabirusaren transmisioak gertatzea”.



ESTIBALIZ GARMENDIA SANTAMARIA

LAUDIOKO HAZKUNTZA TALDEA

Haurren zaintza lanak “normaltasun berrian”

Asko gara gaur egungo gizartean zaintzari inolako baliorik ematen ez diogula sumatu dugunak. Kontua ez da ez dugula nahi, baizik eta agindu argi bat helarazten digutela. Seme-alabak izan behar dituzu, baina behin jaiotzen gero, ezer gertatu ez balitz bezala egin beharko duzu, eta estatu kapitalistak eta patriarkalak eskatzen dituen terminoetan berriro ekoitzi. Horrek esan nahi du zaintzak kanpora ateratzea edo zure burua pobretzea, lan-merkatutik aterata.

Baina galdetu al diogu geure buruari zer espero duten haurrek biologikoki eta zer behar dugun familiek? Ugaztunen artean, bizirauteko zaintza-denbora gehien behar duen espeziea gara. Haurrak, jaiotzen direnean, hainbat hilabetetan zehar zainduak eta babestuak izatea espero dute, euren amen partetik lehen urtean gutxienez, eta behar zuten babes horretaz bete direnean, apurka-apurka, babesa eman dien magla uzten dute, mundua esploratzeko.

COVID-19ak eragindako krisiak inoiz baino argiago utzi du familiek, eta bereziki emakumeek, kontziliatzeke zailtasun handiak ditugula. Eskolak eta haurtzaindegiak itxi egin dira, amonak arriskuan dauden pertsonak bilakatu dira kasu gehinetan, eta horiek ere babestu behar ditugu, eta inor ez da haurtzaroaz gogoratu.

Familia guztiek isilarazitako zailtasun berdinei egin behar diegu aurre. Goizeko bostetan hasten diren telanelako lanaldiak, haurrak esnatu baino lehen lana aurreratu ahal izateko; bederatzietatik aurrera berriz lanera, kasu batzuetan ia %100era iristen diren lanaldi-murrizketak; eta aldi baterako kontratuei uko egitea, umeei arreta eskaintzeari ez uzteagatik. Adibide batzuk baino ez dira. Eta egoera horretan, emakumeak dira kaltetuenak.

Zaindu eta hezteko oso lan baliotsutzat hartzea nahi dugu, horixe baita. Eta normaltasun berria eraiki behar baldin badugu, lehengoaren antza ez duena, eta laguntza eta baliabide publikoen bidez, zaintza-lanari balioa ematen diona izan dadila. Haurtzaindegiak, udako ikastaroak eta abar aukera bat izan daitezkeen, baina ez premiaren arabera araua; eta eskoletako ratioak, behingoz, txikiak beharretara egokitu daitezkeen.



Haurrak kalera irteten ahal izan ziren lehen egunean Amurrioko argazkia. Aiaraldea.eus

AMAUURRE TXIKI

Gozotasuna da
bereizten gaituena



Matrikulazio epea zabalik urte osoan zehar.

Ordutegi malgua: goizeko 7:30etatik arratsaldeko 17:30ak arte

AMAUURRE
IKASTETXEA • BIDAIDE FUNDAZIOA
KRISTAU ESKOLA

Dionisio Aldama, 16 AMURRIO
945 39 35 44

amaurre.eus



artikulua

Uste oker ugari zabaldu dira azken hilabeteetan haurren eta koronabirusaren inguruan

Testua
Txabi Alvrado Bñares

Haurrei buruzko uste oker ugari zabaldu dira azken bi hilabeteetan. 14 urtetik behereakoei kalera irteteko aukera eman zitzaizkionean batek baino gehiagok ziurtatu zuen gorakada bat emango zela COVID-19 birusaren kutsatu kopuruan. Hilabete bat baino gehiago igaro da ordutik hona, eta datu guztiek iradokitzen dutenez, ez da halakorik gertatu.

Heike Freire pedagogo ezagunak uste faltsu horietako batzuk zerrendatu ditu. Alde batetik, ziurtatu du ez dela egia hurrek gaixotasuna transmititzeko probabilitate gehiago dituztela, eta nabarmendu du gaixotasuna ez dela horren arriskutsua umeentzat.

“Badago beste uste faltsu bat: konfinamenduak ez duela umeengan horrenbesteko eraginik izango, helduak baino hobeto moldatzen direlako egoera berrietara”, azaldu du Diana Ibar-

gutxik. Psikologo laudioarraren aburuz, itxialdiak ondorio negatibo ugari eragin ditu haurrengan. “Haserrealdiak eta lo egiteko arazoak ugaritu dira, besteak beste. Kontuan hartu behar dugu haurrena oso kolektibo zaurgarria dela, eta buru osasuna pandemia honetan guztiz alboratu da”.

Kalera irtetearen garrantzia

Kalera irtetearen garrantzia nabarmendu du Ibargutxik. “Umeen-tzat, sei urtetik beherakoen kasuan batez ere, oso gomendagarria da kalean egotea, ezinbestekoa baita pertzepzio espaziala eta tenporala garatzeko”. Gauzak hala, eskolako lanei horrenbesteko garrantzia ez emateko gonbita luzatu du adituak. “Hauek ez dira oporrak, pandemia bat da. Haurrak oporretan ez daudenez ezin ditugu behartu gehiegizko lanakegitera”. Horren ordez, “bestelako ikasketak” sustatzea proposatu du psikologoak, klasean ematen diren materietatik harago doazenak.



Haurrei eta koronabirusari buruzko uste faltsu ugari zabaldu dira konfinamenduan. Oleg Satov

IKASTOLAN MATRIKULA ZABALIK

URTE OSOAN ZEHAR

2019an eta 2020an jaiotakoentzat

HITZORDUA ESKATU

94 672 67 37

matrikula@laudioikastola.eus

etorkizun hobe
sortzeko hezten dugu



LAUDIO
ikastola
www.laudioikastola.eus